Getariako Udala

ONARTUA

OP18/0006/BATZARRA/2018

**2018KO UZTAILAREN 26AN EGINDAKO OSOKO OHIKO BATZARRAREN AGIRIA.-**
**=================================**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA DEL PLENO DEL DIA 26 DE JULIO DE 2018.-**
**=================================**

***ALKATEA ALCALDE***

NIKANOR LERTXUNDI IBARGUREN

***ZINEGOTZIAK CONCEJALES***

BEGOÑA GARATE EIZAGIRRE
AMETS ETXABE IRIBAR
IBON GEREKA BALENTZIAGA
ARANTZAZU AGIRREZABALAGA ITUARTE
FLORENCIO IRIBAR AZPEITIA
IKER AZKUE ETXEBERRIA
ITZIAR ETXARTE OTEGI
AITOR URRESTI MARTINEZ
ANDONI ARISTI IBARRA
BARBARA AZKUE ULAZIA

***IDAZKARIA SECRETARIO***

IÑAKI SAINZ PAREDES

**Getarian, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deiara, 2018ko uztailaren 26an, arratsaldeko zazpietan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ohiko saioan, goian aipatzen diren zinegotziak, Nikanor Lertxundi Ibarguren Alkatearen lehendakaritzapean.**

En el salón de actos de la Casa Consistorial de Getaria, a las diecinueve horas del día de 26 de julio de 2018, se reúne el Pleno del Ayuntamiento en sesión ordinaria, previa convocatoria cursada al efecto, con la asistencia de los Concejales que se expresan, bajo la presidencia del Alcalde Don Nikanor Lertxundi Ibarguren.

**Ez dira batzarreratu Iker Azkue Etxeberria eta Andoni Aristi Ibarra zinegotziak.**

No comparecen los concejales Iker Azkue Etxeberria y Andoni Aristi Ibarra.

**Bertan aurkitzen da Udalaren idazkaria**

Asiste y da fe del acto el Secretario de la



Gudarien Enparantza 1 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa) Tel.: 943 896024 Faxa: 943 140190 E-maila: udala@getaria.eus www.getaria.eus

**den Iñaki Sainz Paredes eta zinpean ekitaldiaren berri jasotzen du.**

Corporación Iñaki Sainz Paredes.

**GAI ZERRENDA**

**ORDEN DEL DIA**

**KONTROLEKO ZATIA:**
**Akten onarpena, ebazpenen berri eman eta erregu eta galderak.**

PARTE DE CONTROL:
**Aprobación de actas, dar cuenta de las resoluciones y ruegos y preguntas.**

**ALDERDI ERABAKITZAILEA:**
**1) Euskaraldia Udal barruan sustatzeko erakunde-adierazpena.**

**2) 2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren kasuan zigortutakoak behin-behinean aske uzteari buruzko erakunde-adierazpenarena**

**PARTE RESOLUTIVA:**
1). Declaración institucional para fomentar en el municipio la campaña “euskaraldia”
2) Declaración institucional en torno a la libertad provisional de los condenados en el caso de violación ocurrida el 7 de julio de 2016.

GOBERNU ORGANUEN KONTROLA

**CONTROL ORGANOS DE GOBIERNO**

**- AKTA AGIRIEN ONARPENA.-**

**Osoko bilkurako deialdiarekin batera honako akta agiria banatu zaie zinegotziei, aztertu eta kasua balitz oharrak aurkez dezaten.**

**- 4/2018 Udalbatzarra, 2018ko maiatzaren 30ekoa ohikoa**

**Oharrik aurkeztu ez denez, idatzita dagoen eraberean ahobatez onartzen da.-**

**- APROBACION DE ACTAS.-**

Juntamente con la convocatoria para el Pleno se ha distribuido a los concejales, copia del acta correspondiente a la siguiente sesión, para su examen y formulación de reparos en su caso.

**- 4/2018, ordinaria de 30 de mayo de 2018**

No habiéndose formulado observaciones, queda aprobada por unanimidad en la misma forma en que ha sido redactada.-

**ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Indarrean dagoen Udal Korporazioen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduko (2568/1986ko E.D. azaroaren 28koa) 42 artikuluan adierazten duen ondorengotarako, Batzarrari, ohiko

**DAR CUENTA DE LAS RESOLUCIONES DE ALCALDIA.-**

A los efectos previstos en el artículo 42 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales (RD 2568/1986, de 28 de noviembre) se da cuenta al Pleno de la Corporación de los Decretos de



Gudarien Enparantza 1 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa) Tel.: 943 896024 Faxa: 943 140190 E-maila: udala@getaria.eus www.getaria.eus

azken bileraz gero, Alkatetzak eman dituen ebazpenak aditzera ematen zaizkio.-

Alcaldía emitidos desde la fecha de la última sesión ordinaria.-

(2018KO MAIATZA-EKAINA-UZTAILA)

| Kodea | Espedientea | Espedientearen gaia | Zk. | Mota |
|---|---|---|---|---|
| B18/0125 | 2018KIBA0008 | Ibilgailu baten zergaren itzulketa onartzeko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0126 | 2018KIBA0009 | Ibilgailu baten zergaren itzulketa onartzeko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0127 | 2018HBLT0026 | Herrerieta kalea 28, 1.a A etxebizitzan leihoak aldatzeko baimena | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0128 | 2018GDID0006 | Arrantzale Zaharren Elkarteari 4.000 €ko laguntza emateko (2 zatitan). | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0129 | 2018GDID0007 | Izan fundazioari 410 €ko laguntza emateko erabakia | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0130 | 2018IHHO0002 | Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren hitzarmena Aldundiarekin onartu eta sinatu | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0131 | 2018IHHO0003 | Berdinbidean hitzarmena Aldundiarekin onartu eta sinatu | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0132 | 2018IOES0002 | Katraponako kantinaren ustiapena 2018 urtean esleitzeko erabakia | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0133 | 2018KIBA0010 | Ibilgailu baten zerga itzultzeko onartzeko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0134 | 2018GPPP0004 | Gizarte arrazoiengatik familia baten 3 adin txikikoen udaleku irekien 284,32 €ko kuotak ordaintzeko erabakia | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0135 | 2018IKOT0001 | Meagako pilotaleku ingurua hiritartzeko egitasmoaren idazketa lana esleitzeko Iñigo Peñalbari 8,470 €tan. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0136 | 2018IKOT0004 | Donosti Ingenieria y Proyectosi esleitu hilerriko instalazio elektrikoaren legeztapena 1.294,70 €. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0137 | 2018IKOT0005 | Meagako argiteria legeztatzeko lanen esleipena egin Donosti Ingenieria y Proyectosen alde 943,80 €tan. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0138 | 2018IKOT0009 | Donosti Ingenieria y Proyectosi esleitu Udalaren argindar kontratuaren legeztapena 1839,20 €tan. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0139 | 2018GPPP0002 | 408 espedientepekoari 277,20 €ko laguntza onartu prebentzio programa aurrera eramateko | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0140 | 2018IKOT0010 | Gertek Sari esleitu parkineko makinen artapena eta diru-bilketa zerbitzua esleitzea16.371,35 €tan. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0141 | 2018IKOT0011 | Parkingeko makinak instalatu eta kentzeko zerbitzuaren esleipena Eraman Gruas y Servicios S.A.ri 5.434,62 €tan. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0142 | 2018IKOT0015 | Itsas Etxeko elkartea berrantolatzeko lanen esleipena egiteko EDSri, 25.000 €tan. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0143 | 2018HBJG0001 | Errekeritu Hormigones Lazkano betelana egin nahi duen lursailaren lurzoru kalitate deklarazioa aurkezteko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0144 | 2018KIBA0011 | Ibilgailu baten zergaren itzulpena | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0145 | 2018KIBA0012 | Ibilgailu baten zergaren itzulpena | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0146 | 2018KIBA0013 | Ibilgailu baten zergaren itzulketa. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0147 | 2018KIBA0014 | Ibilgailu baten zergaren itzulpena. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0148 | 2018IGAS0016 | Ate automatikoen mantenu zerbitzua berritzeko Manusa Pormanorterekin 513,79 € | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0149 | 2018IAKU0004 | 4/2018 Udalbatzarraren deialdia 1 zinegotziari | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0150 | 2018IAKU0004 | 4/2018 Udalbatzarraren deialdia 2 zinegotziari | 3 | Alkate Erabakia |
| B18/0151 | 2018IAKU0004 | 4/2018 Udalbatzarraren deialdia 3 zinegotziari | 4 | Alkate Erabakia |
| B18/0152 | 2018IAKU0004 | 4/2018 Udalbatzarraren deialdia 4 zinegotziari | 5 | Alkate Erabakia |
| B18/0153 | 2018IAKU0004 | 4/2018 Udalbatzarraren deialdia 5 zinegotziari | 6 | Alkate Erabakia |
| B18/0154 | 2018IAKU0004 | 4/2018 Udalbatzarraren deialdia 6 zinegotziari | 7 | Alkate Erabakia |
| B18/0155 | 2018IAKU0004 | 4/2018 Udalbatzarraren deialdia 7 zinegotziari | 8 | Alkate Erabakia |
| B18/0156 | 2018IAKU0004 | 4/2018 Udalbatzarraren deialdia 8 zinegotziari | 9 | Alkate Erabakia |
| B18/0157 | 2018IAKU0004 | 4/2018 Udalbatzarraren deialdia 9 zinegotziari | 10 | Alkate Erabakia |



Gudarien Enparantza 1 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa) Tel.: 943 896024 Faxa: 943 140190 E-maila: udala@getaria.eus www.getaria.eus

Getariako Udala

| Kodea | Espedientea | Espedientearen gaia | Zk. | Mota |
|---|---|---|---|---|
| B18/0158 | 2018IAKU0004 | 4/2018 Udalbatzarraren deialdia 10 zinegotziari | 11 | Alkate Erabakia |
| B18/0159 | 2018IAKU0004 | 4/2018 Udalbatzarraren deialdia 11 zinegotziari | 12 | Alkate Erabakia |
| B18/0160 | 2018IAKU0004 | 4/2018 Udalbatzarraren deialdi orokorra, maiatzaren 30ekoa | 13 | Alkate Erabakia |
| B18/0161 | 2018GEEL0007 | 519 espedientepekoaren alde, etxez etxeko laguntza zerbitzua onartzea. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0162 | 2018GDID0009 | Gipuzkoako Arrantzale Zaharraren omenaldiari, 322,00 €ko diru-laguntza ematea. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0163 | 2018IHHO0004 | 2018, 2019, 2020 eta 2021 urteetan Malkorbe eta Gaztetape hondartzetan zaintza, sorospen eta osasun arreta zerbitzua eskaintzeko hitzarmena Gurutze Gorriarekin onartu eta sinatzeko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0164 | 2018IGAS0013 | Kultur sailerako ordenagailu eta pantailaren erosketa Elurk Informatikari 798,00€ko | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0165 | 2018IHHO0005 | Gurutze Gorriarekin hitzarmena urtean zehar hainbat ekitaldietan osasun zaintza zerbitzuak izateko | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0166 | 2018HBSU0001 | Urkidi baserriko lursail baten banaketa onartzeko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0167 | 2018KFAO0010 | 2018/7 Faktura zerrendaren onarpena egiteko | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0168 | 2018IHHO0006 | Saharautz Elkartearekin hitzarmena onartzeko erabakia 800 € ume sahararra ekartzeagatiko bidai gastuak ordaintzeko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0169 | 2018KFAO0012 | 2018/8 Faktura zerrendaren onarpena egiteko | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0170 | 2018KZEX0004 | Nekazari erabilerako ibilgailuagatik, zergaren salbuespena onartzeko | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0171 | 2018KZEX0005 | Nekazari erabilerako ibilgailuagatik, zergaren salbuespena onartzeko | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0172 | 2018KZEX0006 | Nekazari erabilerako ibilgailuagatik, zergaren salbuespena onartzeko | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0173 | 2018KIBA0015 | Ibilgailu baten zergaren itzulketa onartzeko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0174 | 2018KIBA0016 | Ibilgailu baten zergaren itzulketa onartzeko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0175 | 2018KIBA0017 | Ibilgailu baten gaineko zergaren  onartzeko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0176 | 2018IAIT0002 | Sahatsaga-goiako hiritartzea abala itzultzeko erabakia (345.692,62 eurokoa) (sinatzeke dago – abal berriaren zain) | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0177 | 2018HBLT0028 | Kale Nagusia 5 eraikinaren kanpoaldeetan katak egiteko baimena. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0178 | 2018HBLT0029 | Aldamar kalea 12 eraikinean katak egiteko baimena. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0179 | 2018IGAS0014 | Discount Licensing LTDri Office 2016 prof. Plus 5 lizentzien erosketagatik 887,80 libra esterlina ordaindu | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0180 | 2018KKRA0001 | Kreditu Aldaketarako espedientearen hasiera onartzeko (salbuespen erregimeneko kreditu gehigarriak) | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0181 | 2018IHHO0007 | 2018/2021 epealdirako bandaren hitzarmena onartzeko | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0182 | 2018CGOB0006 | Arratoiak hiltzeko zerbitzua esleitzeko prozedurari atxiki (Foru Kontratazio Zentralaren bidez esleitzeko) | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0183 | 2018GGLL0007 | E.V.Mri gizarte larrialdietarako laguntza emateko (18/2 hiruhil.) | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0184 | 2018GGLL0008 | U.Z.MAri gizarte larrialdietarako laguntza emateko (18/2 hiruhil.) (bikoiztua) | 2 | Alkate Erabakia |
| B18/0185 | 2018GGLL0006 | F.A.E.ri gizarte larrialdietarako laguntza emateko (18/2 hiruhil.) | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0186 | 2018GGLL0008 | U.Z.MAri gizarte larrialdietarako laguntza emateko (18/2 hiruhil.) | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0187 | 2018UTLE0003 | L.GdeCh.B.ri gizarte larrialdietarako laguntza emateko (18/2 hiruhil.) | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0188 | 2018UTLE0001 | Z.U.Mri gizarte larrialdietarako laguntza emateko (18/2 hiruhil.) | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0189 | 2018UTLE0004 | T.P.Ari gizarte larrialdietarako laguntza emateko (18/2 hiruhil.) | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0190 | 2018KFAO0011 | 2018/7B Faktura zerrendaren onarpena egiteko | 2 | Alkate Erabakia |
| B18/0191 | 2018HBLT0030 | Kale Nagusia 8 eraikineko kanpoaldea margotzeko baimena | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0192 | 2018HBLT0031 | Potzuaga 4ko ezkaratzean aulki mekanikoa jartzeko baimena. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0193 | 2018HBLT0032 | Potzuaga kalea 3, 1.a ezkerra etxebizitzaren terrazako obra baimena | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0194 | 2018CGOB0007 | Galdaren artapena kontratatzeko espedienteari atxikitu, Foru kontratazio zentralaren bitartez egiteko | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0195 | 2018KIBA0018 | Ibilgailua zergatik salbuesteko (nekazaritza erabilerako traktorea). | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0196 | 2018UTLE0002 | Y.E.Mri gizarte larrialdietarako laguntza emateko (18/2 hiruhil.) | 1 | Alkate Erabakia |



Gudarien Enparantza 1 -  20808 GETARIA (Gipuzkoa)        Tel.: 943 896024 Faxa: 943 140190        E-maila: udala@getaria.eus     www.getaria.eus

| Kodea | Espedientea | Espedientearen gaia | Zk. | Mota |
|---|---|---|---|---|
| B18/0197 | 2018KBES0007 | URKOMEren 2018ko kuota onartzea, guztira 5.150,51 euroko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0198 | 2018IGAP0006 | 2018ko jai eta egun berezien izendapena egiteko (ordutegiak). | 2 | Alkate Erabakia |
| B18/0199 | 2018IOER0004 | MGS Seguros y Reaseguros S.A.ri 1.196,69 €ko kalteordaina jasotzeko eskubidea onartzeko (Kalteen erreklamazioagatik) | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0200 | 2018IGAS0017 | Back Stage enpresari 314,00 euro ordaindu San Juan jaietan, Balenciaga kalean komuna jartzeagatik | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0201 | 2018UDIR0002 | Txikota Elkarteari 2.000 €ko diru-laguntza onartzeko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0202 | 2018UDI10001 | Artelatz Elkarteari. San Isidro jaien antolaketagatik 1.500 €ko diru-laguntza onartzeko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0203 | 2018IKIE0001 | UTE GETARIAri esleitu polikiroldegia berritzeko lanak 196.691,49 €, gehi BEZa (41.305,21 €) guztira 237.996,70 €tan | 2 | Alkate Erabakia |
| B18/0204 | 2018KFAO0014 | 2018/10 Faktura zerrendaren onarpena egiteko | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0205 | 2018ILAE0001 | Udaldian Portuko aparkaleku zerbitzua zaintzeko 11 udaltzain laguntzaile izendatzeko erabakia | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0206 | 2017IKIE0001 | Aerlan Servicios SLri etxez etxeko laguntza zerbitzua esleitzeko erabakia 2018-2020 epealdirako. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0207 | 2018GFEP0001 | 531 espedientepeko titularrari esku-hartze psikosozialen saioak egitea onartu, 2018ko ekainetik Aurrera | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0208 | 2018IDIR0006 | Getariako Arraun Elkarteari, 13.000,00 €ko diru-laguntza ematea, ARC-1 mailako "IX. Getariako Bandera" estropadako sarientzat. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0209 | 2018HBLH0005 | "Hormigones Lazkano, SL"ri baimena eman Meaga auzoko zabortegiaren hegoaldeko zatian, lurrak eta harriak jasotzeko egokitzapen lanak egiteko | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0210 | 2018KIBA0019 | Ibilgailu baten bajagatik zergaren itzulketa onartzeko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0211 | 2018KIBA0020 | Ibilgailua baten bajagatik zergaren itzulpena | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0212 | 2018IKOT0017 | Eskolako komonak berritzeko lanaren esleipena Erosotegi Slri 14.433,63 €tan. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0213 | 2018UDIR0007 | Artzape Euskara Elkarteari 7.500 €ko diru-laguntza emateko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0214 | 2018IGAP0010 | Polikiroldegiko lanen Segurtasun Planaren onarpena | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0215 | 2018UDIR0008 | Zabuka Guraso Elkarteari 8.500 €ko diru-laguntza emateko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0216 | 2018IKOT0018 | Hondalanak eta Eraikuntzak Arri 2017 SLri esleitu Gaintzatik-Igarategira doan herri-bidearen konponketa 32.430,42 €tan. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0217 | 2018IDIR0007 | Gaindegiari 400 €ko diru-laguntza onartzeko | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0218 | 2018UDIR0009 | Guraso Elkarteari 3.500 €ko diru-laguntza onartzeko. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0219 | 2018IHHO0009 | Kutxarekin lagundutako bainuari buruzko lankidetza-hitzarmena onartzeko 2018 urtekoa. | 1 | Alkate Erabakia |
| B18/0220 | 2018UDIR0010 | Urritza Aisialdi Elkarteari 2.000 €ko diru-laguntza emateko. | 1 | Alkate Erabakia |

**ALDERDI ERABAKITZAILEA:**

**1.- EUSKARALDIA UDAL BARRUAN SUSTATZEKO ERAKUNDE-ADIERAZPENA.**

**Alkateak 2018ko uztailaren 4an udalean sarrera izan zuen idatziaren berri ematen du (1163 Zkia).**

**Idatzian, Getariako EH Bildu eta EAJ**

**PARTE RESOLUTIVA:**

**1.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL PARA FOMENTAR EN EL MUNICIPIO LA CAMPAÑA "EUSKARALDIA".**

El Alcalde de cuenta del escrito presentado en el Ayuntamiento el 4 de julio de 2018. (Nº 1163)

En el escrito, firmado por los grupos



Gudarien Enparantza 1 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa) Tel.: 943 896024 Faxa: 943 140190 E-maila: udala@getaria.eus www.getaria.eus

**Udaltaldeek sinatuta, euskararen erabilera handitzeko, 11 egunez helduen hizkuntza-ohiturak aldatzeko egingo den ariketa kolektiboa babestea du helburua, eta Udalari honako erakunde adierazpena onartzea proposatzen zaio:**

municipales de EH Bildu y PNV, para aumentar el uso del euskera, se propone dar cobertura a la práctica colectiva que durante 11 días llevarán a cabo personas mayores, y propone al Ayuntamiento la adopción de la siguiente declaración institucional:

“ Getariako Udalbatzak **bat egiten du Euskaraldiarekin** eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, **erantzukizunez** eta **eredugarritasunez** jokatzeko konpromisoa hartzen du.

Ordezkari politikoon **egiteko nagusia** izango da Euskaraldiaren markoan eta **bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea**. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien aktibatzeko urratsak emango ditugu, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.

**Ahobiziok** euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.

**Belarriprestok**, gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.

Getariako Udalak **neurriak hartuko** ditu **hizkuntza-praktika** horiek posible izan daitezen eta praktika **horiei etorkizunean eutsi ahal izateko**.

Getariako Udalak, **udal barruan ez ezik udalerrian ere**, ekimenaren sustatzaile gisa, herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldiko ekimenean parte har dezaten eta izena emateko bideak erraztuko ditu.

Getariako Udalak, bat egiten du **ekimena Gipuzkoan elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin,** lurralde mailako politika bateratu bati begira, ahalik eta udal gehienetan, mankomunitateetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan “

Eta besterik gabe bozketa egiten da, honako emaitzarekin:

- Alde bozkatu dute EH Bilduko 6 zinegotziak eta EAJko 3 zinegotziak.

Horren arabera, ERABAKI DA:

LEHENA: 2018ko uztailaren 4an (1163 sarrera zenbakia) aurkeztutako erakunde adierazpena onartzea.

**Y sin más se realiza la votación con el siguiente resultado:**

**- Votan a favor los 6 concejales de EH Bildu y los 3 concejales del PNV**

**Por lo cual** SE ACUERDA**:**

**PRIMERO: Aprobar la declaración institucional presentada el 4 de julio de 2018 (entrada nº 1163).**



Gudarien Enparantza 1 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa) Tel.: 943 896024 Faxa: 943 140190 E-maila: udala@getaria.eus www.getaria.eus

BIGARRENA: Aurrekoaren ondorioz, honako erabakiak onartzea

**SEGUNDO: Como consecuencia de lo anterior, aprobar las siguientes determinaciones:**

**ERAKUNDE ADIERAZPENA**

**Getariako Udalak honakoa adierazi nahi du:**

 Getariako Udalbatzak **bat egiten du Euskaraldiarekin** eta ekimenaren sustatzaile izango da. Horrenbestez, **erantzukizunez** eta **eredugarritasunez** jokatzeko konpromisoa hartzen du.

 Ordezkari politikoon **egiteko nagusia** izango da Euskaraldiaren markoan eta **bereziki udal barrura begira ekimena zabaltzea**. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien aktibatzeko urratsak emango ditugu, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.

 **Ahobiziok** euskara ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu.

 **Belarriprestok**, gainerakoak gonbidatuko ditugu gurekin euskaraz egin dezaten, nahiz eta guk euskaraz edo gaztelaniaz erantzun.

 Getariako Udalak **neurriak hartuko** ditu **hizkuntza-praktika** horiek posible izan daitezen eta praktika **horiei etorkizunean eutsi ahal izateko**.

 Getariako Udalak, **udal barruan ez ezik udalerrian ere**, ekimenaren sustatzaile gisa, herritarrak gonbidatuko ditu Euskaraldiko ekimenean parte har dezaten eta izena emateko bideak erraztuko ditu.

 Getariako Udalak, bat egiten du **ekimena Gipuzkoan elkarrekin, elkarlanean eta batera garatzearekin,** lurralde mailako politika bateratu bati begira, ahalik eta udal gehienetan, mankomunitateetan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan

**2- 2016KO UZTAILAREN 7AN GERTATURIKO BORTXAKETAREN KASUAN ZIGORTUTAKOAK BEHIN-BEHINEAN ASKE UZTEARI BURUZKO ERAKUNDE-ADIERAZPENARENA.**

**2.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL EN TORNO A LA LIBERTAD PROVISIONAL DE LOS CONDENADOS EN EL CASO DE VIOLACIÓN OCURRIDA EL 7 DE JULIO DE 2016.**

**Alkateak 2018ko uztailaren 20an udalean sarrera izan zuen idatziaren**

El Alcalde de cuenta del escrito presentado en el Ayuntamiento el 20 de



Gudarien Enparantza 1 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa) Tel.: 943 896024 Faxa: 943 140190 E-maila: udala@getaria.eus www.getaria.eus

**berri ematen du (1277 Zkia).**

julio de 2018. (Nº 1277)

**Idatzian, Getariako EAJ eta EH BILDU Udaltaldeek adostuta, 2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren errudunei buruz, Nafarroako Lurralde Auzitegiak emandako Autoari buruz, Udalari honako erabakiak hartzea proposatzen zaio:**

En el escrito, consensuado entre los grupos municipales del PNV y EH BILBU, en relación al Auto adoptado por la Audiencia Territorial de Navarra, sobre los culpables de la violación ocurrida el 7 de julio de 2016, se propone al Ayuntamiento la adopción del siguiente acuerdo:

**"ERAKUNDE-ADIERAZPENA**

Nafarroako Probintzia Auzitegiaren autoa jakin berritan, non 2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren harira zigortutako bost pertsonak behin-behinean aske uztea erabaki duten, Getariako Udalak, aho batez, honakoa ADIERAZTEN DU:

LEHENIK.- Getariako Udalak bere babesa, maitasuna eta elkartasuna adierazten die biktimari eta bere senitarteko eta ingurukoei.

BIGARRENIK.- 2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren harira zigortutakoak behin-behinean aske uzteko Nafarroako Auzitegiak hartutako erabakiaren Autoan jasotzen denari dagokionez, gure erabateko desadostasuna adierazten dugu. Zentzu horretan, gure babesa erakutsi nahi diegu aipaturiko autoa inpugnatu nahi duten erakundeei, beharrezkoak diren errekurtsorako bitartekoak erabiliz.

HIRUGARRENIK.- Gure etsipena eta haserrea azaldu nahi ditugu azken Auto horren aurrean, eta bat egiten dugu justizia eskatzen duen aldarriarekin. Erabaki horrek babesik gabe uzten ditu emakume guztiak; sistemak ez ditu behar bezala babesten emakumeen bizitzak eta ez ditu emakumeen eskubideak bermatzen. Hau ez da justizia.

LAUGARRENIK. - Emakume guztiek askatasunerako duten eskubidea aldarrikatzen dugu, eta erasoen aurka antolatzen diren mobilizazioekin bat egiten dugu eta deia luzatzen diegu herritarrei, ekimen horietan parte har dezaten.

BOSGARRENIK.- Getariako Udalak berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa berresten du, mugimendu sozial, feminista, eta, oro har, herritarrekin, eta bereziki, emakumeen eskubideen defentsan eta patriarkatuaren adierazpen ororen aurka."

**Eta besterik gabe bozketa egiten da, honako emaitzarekin:**

Y sin más se realiza la votación con el siguiente resultado:

**- Alde bozkatu dute Bilduko 6 zinegotziak eta EAJko 3 zinegotziak.**

- Votan a favor los 6 concejales de Bildu y los 3 concejales del PNV



Gudarien Enparantza 1 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa) Tel.: 943 896024 Faxa: 943 140190 E-maila: udala@getaria.eus www.getaria.eus

**Horren arabera, ERABAKI DA:**

**LEHENA: 2018ko maiatzaren 24an (914 sarrera zenbakia) aurkeztutako eskaera onartzea.**

**BIGARRENA: Aurrekoaren ondorioz, honako erabakiak onartzea**

Por lo cual SE ACUERDA:

PRIMERO: Aceptar la petición presentada el 24 de mayo de 2018 (entrada nº 914).

SEGUNDO: Como consecuencia de lo anterior, aprobar las siguientes determinaciones:

**ERAKUNDE-ADIERAZPENA**

Nafarroako Probintzia Auzitegiaren autoa jakin berritan, non 2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren harira zigortutako bost pertsonak behin-behinean aske uztea erabaki duten, Getariako Udalak, aho batez, honakoa ADIERAZTEN DU:

LEHENIK.- Getariako Udalak bere babesa, maitasuna eta elkartasuna adierazten die biktimari eta bere senitarteko eta ingurukoei.

BIGARRENIK.- 2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren harira zigortutakoak behin-behinean aske uzteko Nafarroako Auzitegiak hartutako erabakiaren Autoan jasotzen denari dagokionez, gure erabateko desadostasuna adierazten dugu. Zentzu horretan, gure babesa erakutsi nahi diegu aipaturiko autoa inpugnatu nahi duten erakundeei, beharrezkoak diren errekurtsorako bitartekoak erabiliz.

HIRUGARRENIK.- Gure etsipena eta haserrea azaldu nahi ditugu azken Auto horren aurrean, eta bat egiten dugu justizia eskatzen duen aldarriarekin. Erabaki horrek babesik gabe uzten ditu emakume guztiak; sistemak ez ditu behar bezala babesten emakumeen bizitzak eta ez ditu emakumeen eskubideak bermatzen. Hau ez da justizia.

LAUGARRENIK. - Emakume guztiek askatasunerako duten eskubidea aldarrikatzen dugu, eta erasoen aurka antolatzen diren mobilizazioekin bat egiten dugu eta deia luzatzen diegu herritarrei, ekimen horietan parte har dezaten.

BOSGARRENIK.- Getariako Udalak berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa berresten du, mugimendu sozial, feminista, eta, oro har, herritarrekin, eta bereziki, emakumeen eskubideen defentsan eta patriarkatuaren adierazpen ororen aurka.

**- ERREGU ETA GALDERAK.**

**Ez zen aurkeztu horrelakorik.**

**- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se presentó cuestión alguna.



Gudarien Enparantza 1 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa) Tel.: 943 896024 Faxa: 943 140190 E-maila: udala@getaria.eus www.getaria.eus

**Eta besterik gabe, Alkateak bilera amaitzea erabaki zuen, arratsaldeko zazpiak eta zortzi minutu zirenean eta herriko festen atarian, zinegotziei ahalik eta ondoen pasatzea opatu die.-**

Y sin más, el Alcalde ordena levantar la sesión, siendo las diecinueve horas y ocho minutos deseando a los concejales ante el próximo inicio de las fiestas patronales que las pasen lo mejor que puedan.-

O.E. // Vº Bº
Alkateak // El Alcalde

Iz. / Fdo. Nikanor Lertxundi Ibarguren

Getariako Udala
Alkatea
ALKATEAK
digitalki sinatuta
Izenpe ziurtagiria

**NIKANOR LERTXUNDI IBARGUREN**
**Data / Fecha: 2018/07/27**

Getariako Udala
Idazkaritza
IDAZKARIak
digitalki sinatuta
Izenpe ziurtagiria

**IGNACIO SAINZ PAREDES**
**Data / Fecha: 2018/07/26**



Gudarien Enparantza 1 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa) Tel.: 943 896024 Faxa: 943 140190 E-maila: udala@getaria.eus www.getaria.eus